

GARI GARATIALDE



Euskarazko jolasak

Urtxintxa eskolak bildutako jolasen artean lau aukeratu ditugu, adibide modura:

Aita Mukuerretako: Jolas hau txaloka eta lerroan jolastzeko modukoa da. Elkar ezagutzeko da, eta gaztelaniaz «Yo soy la cantinera» edo frantsesez «Mariage Chinois» bezala ezagutzen dena. Haurrak bi lerrotan jartzen dira, elkarri begira. Erdian kide bat hasiko da pasatzen alde batetik bestera, eta bat-batean bikotekide bat hautatuko du. Kantuaren amaieran hark hartuko dio txanda. Uribe Kostan jaso duten bertsioa da, eta Oskorri taldeak Katuen Testamentua diskoan argitaratu zuen kantua.

Joxe Martin: Aurrekoaren aldaera bat da, Zaldibian bildutakoa. Norberaren buruaren afirmazioa eta hezikidetzat lantzen dira. Erdian dagoen kideak kantuan jarraitzen duen bitartean zenbait eginbehar izanen ditu, abestiak berak agintzen dituenak. Kantua bera da jolasaren aldaerarik nabarmenena.

Oso ondo egiten duzulako: 3 eta 6 urte bitarteko hurrekin jostetan ibiltzeko jolasa da. Norberaren buruaren afirmazioa lantzea du xede. Biribilean jarrita egiten da. Taldekide bat erdian hasten da dantzatzeko, gainerakoek

kantatzen eta erdian dagoena imitatzen duten bitartean.

Tabak: Izen ezberdinak ditu joko honek, bertzeak bertze, tortoloxak, sakak, boltsarriak... Taba bakoitzak hiru posizio ditu: lepoa, zuloa eta gerria. Lehenengo jokalaria bere tabak lurrera botatzen ditu (normalean 6, baina 8 edo 12 ere izan daitezke), eta ondoren bertze jokalariek ere beren tabak botatzen dituzte. Tabak bota ondoren horiek zein posiziotan jarriko dituen erabaki behar du lehendabiziko jokalaria (edozein izan daiteke, baina lurrera botatzerakoan gehienak gerri aldera geratu badira, normalena denak gerri aldera pasatzea izango da, gutxiago izango baititu aldatzeko). Ondoren, pilota bat airera bota eta hark lurra ukitu baino lehen (kasu batzuetan bote bat eman ondoren) aurretik erabakitako posizioan jarri behar dira taba guztiak. Ez badu guztiak aldatzea lortzen, hurrengoaren txanda izanen da, eta hark ere alde berera aldatu beharko ditu tabak. Gutienez bat aldatzea lortzen badu pilota botatzeko aukera izanen du. Horrela jarraitzen da, taba guztiak eskuratu arte.

rekin oharrak hartu eta kantua bildu zituzten», azaldu digu Atzio Orejak. Azkenik, Urtxintxako kide eta begiraleek inguruan zuten adineko jendearengana jo zuten.

Lana zabaltzeko ahalegina

Bilketa lana eginda, esparru guztietara zabaltzeko ahalegina egin nahi dute orain. Material hori argitaratzeko asmoa dute. «Liburuki batean baino gehiago fitxa bidez zabaltzea pentsatzen ari gara, hau ez baita erabat itxia dagoen lana, eta gerora ere jasoko ditugun fitxekin osatu ahal izango baikenuke», argitu du Orejak.

Halaber, jendearekin zuzenean lan egin nahi dute. «Ikastaroak, kale dinamizazioak, programak eta erakusketa ibiltari bat jarri ditugu abian», gehitu du Urtxintxako kideak. Haurrentzako bi proposamen dituzte. 48 ordu jolasean programak bi eguneko egonaldia eskaintzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Aterpe batean hezitzaile adituek gidatutako unitate didaktikoen bidez irakasten dizkiete jolasak haurrei. Bertze aukera, berriz, kale dinamizazioarena da. 6-12 urte bitarteko haurrei bideratua dago, jaialdi moduko bat da, ordubete eta bi ordu bitarteko iraupena izan dezakeena. Animatzaileek dina-

mizatzen dute jolas eta abestien bidez.

Hurrekin harremana izatea garrantzitsua den bezala, guraso, irakasle eta hezitzaileekin egin beharreko lana ere interesgarria da, erabat. Haien zati, saio laburretan banatutako formazio ikastaroak eskaintzen dituzte. Gurasoak jolasen eta abesten jartzen dituzte. Hezitzaile adituen bidez eta prestatutako materialaren laguntzarekin —jolasen liburuxka eta grabazioa— lantzen da hezitzaile, guraso eta irakasleekin gaia. Erakusketa ibiltaria da gaia jorrazteko buruzko ibilbide didaktikoa proposatzen dute erakusketa baten bidez, eta haurrak, pista joko baten bidez, jolas horiek guztiak ezagutuko ditu. Euskarazko jolasak bizirik daude oraindik herri euskaldunenetan. «Herri txikiak dira, oro har, normaltasun osoz erabiltzen dituzte jolasak, harreman sareak mantentzen dituzte... Hirietan ez dago horrelakorik», azaldu du Atziok.

Haurrek modaren arabera jokatzeko ohitura dute, orain zibarekin, gero kanikekin... «Hori dela eta, ikastetxe batzuetatik deitzen digute esanez kokoteraino daudela kantu batzuekin, jolas batzuekin... Baina



modu horretan transmisioa ziurtatzen da».

Orotara 210 jolas bildu dituzte. Jolas bera leku desberdinetan modu ezberdinean jolasten da, eta izen ezberdinak izaten ditu. Haurrak jolas horiek ikasten dituztenean edo euskarazko kantua dutela jakitean harritu egiten dira, baina oso jarrera ona azaltzen dute. «Bat-batean, beti erdaraz kantatu izan dituzten abestiak euskaraz ere badaudela deskubritzen dute». Haurrek euskarazko jolasak ikasten jarraitzeko aukera izanen dute. Gurasoek, hezitzaileek eta irakasleek dute giltza.

• Jon Abril •